



hermes

SAF

HISTORIA

TELESFORO MONZON ETA JOSE ANTONIO AGIRRE: BI LAGUN, BI POLITIKA.

URTEURRENAK

Azken bolada honetan, bi urteurren garrantzitsu ospatu ditugu. Iaz, Jose Antonio Agirreren heriotzaren 50. urteurrena gogoan izan genuen, Euskadiko aurreneko lehendakaria eta, segur aski, agian Indalecio Prieto buruzagi sozialistarekin batera, XX. mendeko euskal politikaririk garrantzitsuen, eraginkorrena eta estimatuen izan zena, 1960ko martxoaren 22an hil baitzen. Aurten, ordea, Telesforo Monzonen heriotzaren 30. urteurrena (1981/3/9) izan da. Inongo zalantzarik gabe, Monzon euskal nazionalismoaren lider edo gidari handienetariko bat izan zen, eta gainera beste inork ez daukan berezitasun bat zuen, ez baitago euskal nazionalismoaren unibertsoan beste inor nazionalismoaren bi esparruetan lider edo gidaria izan zena: bai Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJK) zuzentzen duen nazionalismo historikoaren esparruan, zein ETAREN

LUDGER MEES

inguruko ezker abertzalearen esparruan. EAJren barruan karrera oparoa izan zuen Monzonek: Bergarako zinegotzia, GBBko lehendakaria, EBBko kidea, diputatua, Agirre gobernuaren sailburua, Barne Sailean lehen, eta Kulturaren ondoren. Ikusten denez, bere curriculumean ez zaio asko falta. Beste horrenbeste esan dezakegu ezker abertzalearen baitan egindako ibilbideaz. Anai-Artea (1969) erakundearen sortzaile eta lehendakaria izan zen, Herri Batasunaren sortzailetariko bat, diputatua Kongresuan (1979) eta baita Gasteizko Legebiltzarrean ere (1980). Bi esparru horietan, hizlari aparta, euskaltzale sutsua eta idazle bikaina izan zen Telesforo.

Halere, nire ustez ez da gehiegikeria esatea oraindik orain Monzon euskal nazionalismoaren ezezagun handia dela. Harritzekoa da, horrelako curriculum luzea eta distiratsua izanik, gaur egun Monzoni buruzko biografia sendo eta seriorik ez egotea. Pertsonai ezezaguna bada, nire ustez elkarrekin lotuta dauden bi arrazoiengatik da: bata, ibilbide politiko arraroa, ez-ohikoa, konplexua eta kontrajarria izan zuelako, eskema sinple eta ulergarrietan nekez sartu litekeen horietarikoa; eta bigarrena, konplexutasun eta kontraesan horiei besterik gabe normaltasunez aurre egitea eta onartzea baino, bai alde batekoek zein bestekoek normalean nahiago izan dutelako, konplexutasun hori alde batera utziz, Monzon irudi eta ikur bihurtzea, mezu politiko bat edo bestearen mesedetarako. Horren ondorioz, urte askotan Monzon ez zaigu agertu akatsak egiten eta lorpenak eskuratzen zituen benetako politikari humano gisa, baizik eta sinbolo gisa. Ikonografikoki honek ere izan du bere isla. Izan ere, askoz gehiago ezagutzen baita Monzon Argalarekin batera erakusten duen argazkia, Monzon bere Gobernu bulegoan eserita jaso duen argazkia baino.

Lerro hauen bitartez ahaleginduko naiz, desoreka hori zertxobait leuntzera eta gutxiago ezagutzen den Monzon hura, alegia, Errepublika, gerra eta erbestearen lehen bi hamarkadetako garaiko Monzon hura, gerturatzera. Historian zehar egin beharreko bidaiaren geltokia 1960ko martxoaren 27a izango da. Egun horretan, Telesforo elkartu baitzen azkeneko aldiz bere betiko lagun minarekin. Jose Antonio Agirre lehendakaria Parisen hil ondoren, bere gorpua Monzonek Donibane Lohitzunen zeukan etxean beilatu zuten. Monzonek bere hasierako ibilbide politikoaren urrats ia guztiak Agirrerren ondoan egin zituen. Bi gizonek gazte garaitik ezagutzen zuten elkar, Agirrerren aita Bergararra zelako eta Jose Antonio, bere familiarekin batera, uda asko pasa zituelako Bergaran. Biak kinta berekoak ziren, 1904ean jaioak, eta Errepublika garaian, Manuel Irujo eta Javier Landaburu bezalako jeltzaleekin batera, EAJ alderdia modernizatu, zentro politikora eraman eta indartu egin zuten belaunaldi jeltzale berri bateko protagonista nagusiak izan ziren. Biak

euskaltzale amorratuak ziren, eta biak behartuta gazte garaian ia galduta zeukaten hizkuntza ikasi eta berreskuratzeko. Biak pertsonai karismatikoak, emakumeen artean arrakasta handikoak, eta segur aski euskal nazionalismoak garai horretan zeuzkan mitinlaririk onenak, gaztelaniaz eta baita ere -batez ere Monzon- euskaraz. Lagun minak ziren, elkarri erabateko konfiantza eta errespetua erakusten ziotenak, nahiz eta hasieratik bien arteko hierarkia ere argia izan: Monzonek miresten zuen Agirre, bere kemen politikoa eta jendea bereganatzeko zeukan gaitasuna. Telesfororentzat Agirre zen bere liderra, norabide politikoa markatzen eta agintzen zuena, eta iritsi edo jarrera hori ez zuen aldatu ezta 1950. hamarkadan ere, Jaurlearitza eta EAJtik urruntzen hasita zegoenean.

Hala eta guztiz ere, komuneko ideala bazuten ere, ikusiko dugun bezala, politika ulertzeko eta gauzatzeko estrategia eta filosofia desberdinak izan zituzten, agian ez horrenbeste hasierako urteetan, baina bai azkenekoetan.

MONZONEN SOZIALIZAZIO POLITIKOA II ERREPUBLIKAN

Hasteko esan genezake Monzon ia genetikoki predestinatua zegoela politikaria izateko. Izan ere, bai bere aitona, Telesforo Monzon de Olaso y Zurbano, eta baita bere aita ere, Vicente Monzon de Olaso y Lardizabal, politika munduan ibilitakoak baitziren, beti ere esparru tradizionalista eta kontserbatzaileetan. Monzondarrak Gipuzkoako nobleziaren ordezkari apartak ziren, baserri, lur eta beste ondasun askoren jabeak, Euskal Herriko, Espainiako eta Europako nobleziarekin ondo lotutakoak. *El Día* egunkariaren arabera (1931.1.18), Telesforo zen “heredero de una de las casas de más rancio abolengo del país, perteneciente a la aristocracia y señorial villa de Vergara”. Eta Monzonek ez zuen inoiz bere jatorri eta bizimodu aristokrata ezkutatu. Hona hemen Txillardegiren istorioa polit eta esanguratsu bat. ETA sortu baino lehenago, bera eta bere lagun bat pertsonalki ezagutzen ez zuten Telesforo handia ikustera joan ziren Donibane Lohitzunera. Monzo-

nek bazkaltzera gonbitatu zituen *Mende Berri* izeneko bere etxean. Honela deskribatzen du Txillardegik beraien inpresioa etxeko jangelan sartzerakoan:

“Aretora pasarazi gaitu nes-kame batek. Eta handik minutu batzuetara, mahaira joan gara lau-
rok: Maria Josefa, Telesforo, Ipa-
rraldeko nire adiskidea, eta laurok.
(...) Eseri egin gara. Atean bizpahiru
neskame, hirurak euskaldunak, guri
begira. Eta jaten hasi behar. No-
la, ordea? Apaiza eta biok, elkarri
begira, baina ... zain. Baziren han
bospasei koilare, nik uste, bospasei
tenedore, eta bospasei labana. Zein
hartu behar? Telesforo, bestalde, po-
laineekin presentatu zitzaigun (be-
ti bezala, garai hartan): polaineekin,
bai: botoi-ilarak eta guzti. Azkenean
Telesforok hartu du koilare bat, eta
guk biok zein koilare hautatu behar
zen asmatu dugu. Hura larria! Kei-
nurik txikiena egin orduko, neskame
uniformatuak hantxe genituen, zer-
bitzatzan ari. Dударik ez: Telesforo
aiton- seme gisa ezagutu nuen; eta,
zinez, De Monzon zen” (*Punto y Ho-
ra*, 1981.3.19-26).

Horrela, bada, behin behar ekonomikoak ederki asetuta zeudela, Telesforo gaztearentzat, bere aitarentzat bezalaxe, politikarako eta baita kulturarako atea zabalik zegoen. Izan ere, nahiz eta Madrilen zuzenbide ikasketak egin, Monzon berak behin baino gehiagotan aitortu izan du oso ikasle kaskarra izan zela eta Madrilen zegoenean, legeak eta legegintza aztertu eta ikasi beharrean, euskara ikasten eramaten zuela bere denbora. Ezaguna da artean Euskal Herriko noblezian eta goi mailako burgueserian euskara kasu gehienetan menpeko eta umeekin hitz egiteko hizkuntza bat izan zela eta gazteleraren (edo frantsesaren) ezaguera goi-mailako status soziala erakusteko markatzailea bezala erabiltzen zela. Monzonek apurtu zuen tradizio hori eta erdi galduta zeukan bere hizkuntza berreskuratzea Tolosaldeako Urkizu izeneko herrixkako baserri batera joan zen bertan hilabete batzuk pasatzeko. Egonaldi horretan ezagutu zituen López de Mendizabal,

Labayen edo *Lizardi* bezalako euskaltzaleak. Hilabete horietan nazionalista bihurtu omen zen eta 1930eko azaroan, Bergaran EAJ eta Comución Nacionalistaren arteko batze-kongresua ospatu zenean alderdian sartu zen, bere ibilbide politiko luzeari hasiera emanez.

Ibilbide horren urratsak ezagunak ditugu. 1931ko udal hauteskundeetan Bergarako zinegotzia hautatu zuten Monzon. 1933an hilabete batzuetan Gipuzkoako Buru Batzarreko lehendakaria izan zen eta gero baita Gipuzkoarako diputatua Gorteetan ere (ez ordea 1936an, hainbat argitalpenetan irakurri daitekeen bezala. Hauteskunde horietan zerrendan egon arren, Alderdiak bigarren hauteskunde txandan erretiratu egin zuen gainontzeko hautetsien arrakasta bermatzeko). Agirrek zuzentzen zuen Euskal Udal Etxeen mugimenduan parte hartze aktiboa ere izan zuen, Itun Ekonomikoa Madrilgo gobernuaren aurrean defendatzeko eta autonomia eskatzeko. 1933an Bartzelonan politikari katalanista desberdinekin *Galeuzca*, hots hiru nazionalismo periferikoen arteko erakunde koordinatzailea, prestatu zuen. Urte bat beranduago berriz Kataluniara joan zen Udalen Mugimenduarentzat babeska eskatu asmoz. Politikari bergarar gazteak garai horretan burututako lanaren ezaugarri nagusiak lau puntutan laburbildu daitezke:

1. Politikoki, EAJk, eta batez ere Agirrek, artikulatzen zuten politikarekin guztiz bat zeterren. Politika honen erabateko lehentasuna autonomia lortzea izan zen, hasieran eskuin-muturreko aliatu tradizionalistekin (Lizarrako Estatutua), eta gero, eskuinarekin puskatu ondoren, Gestoreen Estatutuaren alde, ezkerrarenganako hurbilketa estrategikoaren bidez.

2. EAJren barruan, Monzonek sektore eskuina eta tradizionalista ordezkatzan zuen, besteak beste erlijio eta Elizaren defendatzaile sutsua izan baitzen. Horrela, esate baterako, EAJk egindako 1932/33ko Asanblada Nazionalen Monzonek defendatu zuen apaizek eta fraideek aukera izan zezatela alderdi kideak izateko. Proposamen honi buruzko bozketa galdu egin zuen. Bestetik, Bilboko Jesusen Bihotza monumentua botatzearen aurkako mitin batean ere ageri zen Telesforo gaztea. Fede katolikoa eta Elizarekiko zeukan atxikimendua bere hizkeran

ere islatzen zen: “El señor Monzón hace luego un brillante paralelismo entre la concepción y la difusión del cristianismo por Jesucristo y la concepción y difusión vasca por Sabino Arana” (*El Día*, 1931.5.23).

Bestetik, emakumeen paperari zegokionez, garai horretako ikuspegi kontserbatzaile eta tradizionalistekin bat egiten zuen eta horren adibide ugari utzi zuen, Emakume Abertzale Batzak antolatutako mitin batean bezalaxe:

“No se trata de poner barreras a la inteligencia; cuanto más sepa la mujer, mejor: pero conviene tener presente que el fin principal de la mujer vasca es ser buena esposa y buena madre, y si le queda tiempo, procurar que todas las emakumes hagan lo propio (...)

Es preciso, añade, que las jóvenes, ocho o diez años antes del matrimonio, sepan cuál ha de ser su fin y guarden sus más puros sentimientos para el que ha de ser padre de sus hijos. Y después, ya en la vida matrimonial, no les importe ser dominadas por el marido, que, a fin de cuentas, el ser dominado es prueba de que se ama más intensamente” (*Euzkadi* 1931.10.23).

Antza denez, baita garai horretako tesuinguru kontserbatzailean ere, hitz hauek gogor samarrak izan omen ziren. Ondorengo hitzaldi batean zuzenketa zetorren: ez zuela nahi “secuestrar a las mujeres en la cocina. No hay tal; a la mujer, sin que se desentienda de sus peculiares ocupaciones, le reserva un papel importante”.

Halere, Monzontzat emakumeak bete behar zuen *paper garrantzitsu* hori ez zen mitinetan eta bizitza publikoan egotea, baizik eta: “educar a los hijos haciéndoles patriotas” eta, sentimenduak eta bihotza erabiliz, euskaldun guztiak nazionalista bihurtzea: “Esa es la labor de las emakumes y ya veréis que cuando no haya en Euzkadi ni una sola persona que no sea nacionalista, entonces Euzkadi podrá ver realizadas sus aspiraciones” (*Euzkadi*, 1931.10.30).

3. Bere bizitza politikoaren hasiera hasieratik, hizlari bikaina eta maitatua izan zen Monzon. Errepublikara garaietan, mitinez mitin ibiltzen zen, ehundaka hitzaldi emanek. Berak emandako datu bat hauxe: 1931ko maiatzean emandako bere lehen mitinetik 1932ko abuztura bitartean 250 hitzaldi baino gehiago eman omen zituen. Segur aski, EAJren buruzagien artean, mitin gehien eman zuena izan zen. Eta behin hitza hartu ondoren, eragin oso handia lortzen omen zuen. Hona hemen honen lekukotza bakarren bat: “Su ademán es sobrio, su voz de resonancias íntimas, profundo su acento emotivo y vibrante, que enciende los pechos y junta las manos en expresiones estruendosas de entusiasmo” (*El Día*, 1931.6.27).

4. Parlamentari gisa egindako lana ez zen bereziki oparoa izan, baina bai oihartzun handikoa. Agian bere bizitza osoan zalapartarik handiena eman zuen hitzaldia 1935eko azaroan Parlamentuan egindakoa da. Artean, Agirre eta Irujorekin batera, Renovación Españolako lider monarkikoa zen José Calvo Soteleri aurre egin zion bere hitzen bitartez sekulako polemika sortuz. Polemika horren aurrekariak hauexek:

1934ko Iraultzaren ostean, eta Errepublikako gobernu eskuindarrak agindu zuen errepresioa zela eta, EAJk guztiz puskatu egin zuen eskuinarekin, honek leporatzen baitzion iraultzaile ezkertiarrekin bat egin izana. Monzonen aurkako salaketa ez zen nolana izan: Bartzelonara joan zenean, bertako separatistekin iraultza prestatu eta koordinatzeko asmoz egindako bidaia izan omen zela zioten eskuineko bozeramaileek. Calvo Sotelo Donostiako Urumea Pilotalekuan emandako mitin batean bere esaldi ospetsu bota zuen: “Nahiago dut Espainia gorria, Espainia puskatua baino”. Ondoren, Parlamentuan nazionalismo osoa legez kanpo jartzea eskatu zuen. Monzonek eman zion lehengo erantzuna. Benetako maisu-lan erretorikoa izan zen bere hitzaldiarekin Kongresuari sua eman zion, batez ere nazionalismo espainiarren “Behi Sakratua” ukitu zuelako, hain zuzen ere, Inperio kolonialaren hondamendia:

“Cuando un pueblo pide a España la autonomía, España, en vez de autonomía, envía lo que, por

lo visto, va a mandarnos ahora el Gobierno: persecución. Entonces la voz de libertad de un pueblo crece (grandes protestas....) Llegará un momento en que la autonomía que vosotros ofrezcáis a nuestro pueblo ya no le satisfará. Cuando todos los vascos os reclaman más que una autonomía, entonces será cuando querréis concedernos un trocito; pero puede ser tarde, como lo fue en Cuba (grandes protestas, que duran largo rato)”.

Giroa lasaitzeko, Gorteetako presidentek ez zuen beste erremediorik ikusten Monzon errikulizatzearena baino: “Señor Monzón, no aspire S.S. a la corona del martirio, porque hasta ahora no resulta más que un joven indiscreto”¹.

Debate honetan, diputatu jeltzaleen artean paperak ondo banatuak zeuden: Monzoni egokitu zitzaion gaiztoaren eta probokatzailearen papera egitea, eta gero jeltzaleen benetako liderra zena, Jose Antonio Agirrek alegia, bere lagunaren tesiak guztiz babestuz, baina bere burua erre gabe, lasaiago hitz egin zezaken, bazekielako gero berari tokatuko zitzaiola autonomiaren inguruko negoziaketak zuzentzea. Beraz, polemikaz aparte, Gorteetako debate sutsu honek funtsean bi helburu bete zituen jeltzaleen estrategian: bata, eskuinarekiko haustura eszenifikatzea eta ezkerreko alderdiei seinale bat ematea; eta bigarrena, prentsa eta ondorengo omenaldien bitartez, Euskadiko jarraitzaileak mobilizatzea.

GERRA ZIBILA

Gorteetako debate hori geroz eta gehiago azaleratzen ari zen prozesu baten adierazle garbia izan zen, militar eskuindarren matxinadara zerman erradikalizazio prozesuarena, hain zuzen. Eta geroz eta garbiago zegoen, matxinada horren arrazoia eta jomuga nagusienetariko bat euskal nazionalismoa eta mugimendu honen gorakada izango zela. Han hemenka indartzen ari ziren zurrumurruek artean, Monzon episodio ilun baten protagonista bilakatu zen 1936ko apirilaren 20an. Iluna diot gertaera hori gertatu zela badakigulako, baina dokumentu edo testigantza fidagarririk ez

dagoelako jakiteko zehatz-mehatz zer gertatu zen. Kontua hauxe da: egun horretan, Monzon, EAJren ordezkari gisa, elkartu omen zen Fausto Gaiztarrero, Donostiako arkitekto eta karlista ospetsuak, Gipuzkoako hiriburuan zeukan jauregian beste alderdi eskuindarren ordezkariekin. Ramón Sierra Bustamante monarkikoak, artean *Diario Vasco*ko zuzendaria eta bere hitzetan “horrelako zenbait bileratan” lekukoa, honela deskribatu zuen bilera horren edukia:

“En el mes de abril de 1936, un caballero guipuzcoano, preocupado por la posibilidad de una intentona comunista, convoca en su residencia a todos los partidos de derecha con el propósito de organizar la defensa del país. Se reunieron clandestinamente representantes del Partido Nacionalista Vasco, de la Comunión Tradicionalista, de Renovación Española, de Falange y de la CEDA. Expuesto el peligro de una revolución comunista, todos convinieron en la necesidad de realizar una labor común. El señor Monzón, que representaba a los nacionalistas vascos, dijo que ellos contaban con hombres, pero necesitaban armas. Preguntado entonces si llegarían a colaborar incluso en el caso de que se implantara una dictadura militar, manifestó, aunque con distinguos y vacilaciones, que aun llegando ese caso. Terminada la reunión, que era simplemente preparatoria, y convenida en principio la acción común, se hizo una reducida entrega de armas y de dinero al Partido Nacionalista, que temía un incidente violento y próximo”².

Antzeko zerbait kontatzen du, politikaren beste muturretik, Manuel Chiapuso anarkistak³. Nik dakidala Monzonek berak ez du inoiz hitz egin bilera honi buruz eta, esan bezala, ez ditugu inoiz xehetasunik jakingo. Kontua da, eta Sierra Bustamante berak ere aitortzen du, azkenean ez zela inongo adostasunik lortu: “Los nacionalistas querían las armas sin comprometerse a nada que no fuese la defensa del país, entendida la oportunidad y el modo de defensa del país a su manera”.

Horrela, uztailaren 18ko altxamendua gertatu zenean, eta hasierako zalantzak gainditu ondoren, EAJk Errepublikaren aldeko jarrera hartu zuen eta Monzon bera Gipuzkoako Defentsa-Juntan sartu zen Orden-Publikorako komisario gisa. Bertan, bere eginbehar nagusienetarikoa bat armak lortzea izan zen, eta lortu ere egin zituen: gutxi batzuk Bartzelonan, eta 5.000 fusil eta beste armamendua Txekoslovakian. Harelere, gutxi iraun zuen karguan. Izan ere, preso eskuindarren aurkako hilketak zirela eta (beraien artean Monzonek pertsonalki ezagutzen zituen zenbait pertsona), bere dimisioa aurkeztu zuen.

Gipuzkoa erori ondoren, Jose Antonioren Agirrearen deiak ez-ustean harapatu zuen Monzon, Iparraldeko Getarin bazkaltzen ari zela. Berehala joan zen barkoz Ondarroara, eta hortik Gernikara. Bertan, Agirrek eskertu omen zion armak lortu izana eta jakinarazi zion Gobernazio sailburu izendatuko zuela. Monzonek hasieran ez omen zuen onartu, baina Agirrek ondoren konbentzitu zuen: “Me explicó que no tenía más remedio que aceptar porque las circunstancias lo mandaban. Y así acepté aquel cargo a mis 32 años. Como Aguirre. Un chaval”⁴.

Hemendik aurrera, bi lagun horien arteko harremanak politikoak izateaz gain, instituzionalak ere baziren. Zergatik aukeratu ote zuen Agirrek Monzon kargu garrantzitsu horretarako, eta ez beste inor? Erabaki honen arrazoiak ilunpean gertatu dira, baina Agirre ezagututa pentsatu daiteke arrazoitarikoa bat izan zitekeela Agirrearen nahia, badaezpada, etsaiarekiko zubi guztiak ez apurtzea, inoiz negoziatu beharko balitz, eta Monzonek trintxeraren beste aldeko asko ezagutzen zituen ederki asko. Bestetik, armak erosteko erakutsi zuen trebetasuna eta Gipuzkoako Juntan izan zuen esperientzia -laburra izan arren- ere kontuan hartuko zituen.

Gerrak Euskadin iraun zuen hilabete gutxitan, Gobernazio sailburuaren eginkizun nagusienetarikoa bat Ertzaintza izeneko (“Ertzaña”) euskal polizia, baita horren talde motorizatua ere, sortzea izan zen. Polizia honek ahaleginak egin zituen ge-

Zergatik aukeratu ote zuen Agirrek Monzon kargu garrantzitsu horretarako, eta ez beste inor?

rra garaian ordena publikoa mantentzeko, baina 1937ko urtarrilean, Bilboren aurkako bonbardaketaren ostean, ezin izan zuen Bilboko kartzelen kontrako oldarketa ekidin. Izan ere, egun horretan haserre bizian eta kontrolik gabe zeuden indar ezkertiarrek 224 preso hil egin baitzituzten. Bilboko espetxeek oso babes polizial eskasa zuten, ertzainak berandu iritsi ziren eta oldarketa amaitu zen bakarrik Monzon bera, Gobernuko beste sailburu batzuk lagunduta, pertsonalki kartzeletara joan zenean. Episodio honek Jaurilaritza eta batez ere EAJren barruan sekulako polemika sortu zuen. Juan Ajuriagerra, Bizkai Buru Batzarreko lehendakariak, Agirreari eskatu zion Monzon bere kargutik kentzea. Nonbait, Ajuriagerrak egun batzuk lehenago eskatu omen zion sailburuari kartzelen segurtasuna hobetzea. Agirre ez zion buruzagi bizkaitarrari kasurik egin eta, protesta gisa, Ajuriagerrak utzi zuen bere kargua. Euzkadi Buru Batzarreko lehendakariaren esku-hartzea beharrezkoa izan zen Ajuriagerra bere lanera itzul zedila konbentzitzeko. Hiru ondorio atera daitezke gatazka honetatik:

1. Gertaerek gainditu egin zuten Monzon eta honek berandu, beranduegi, erreakzionatu zuen. Agirre berak aitortu zuen, erantzukizun politikoa Gobernuarena izan zela: “Somos culpables nosotros. Yo el primero, porque nos fallaron los resortes del mando en aquel momento”. Hau, azken finean, bere lagun Telesforori egindako kritika zuzena zen. Jesus Mari Leizaola, Kultura sailburua eta EAJren beste buruzagi indartsuak, antzeko iritzi ezkorra zeukan Monzoni buruz: “Era un hombre muy impresionable en la exaltación y poco constante (...) Durante el tiempo de la guerra, en los primeros tres meses, tuvo unas misiones que no las sentía y, por lo tanto, no respondía a ellas (...). Le tocó una tarea que era muy poco adecuada para él”⁵. Ondorengo urteetan, Monzonek aitortu zuen “krisi” bat gertatu zela, baina berak ez zuela horri buruz hitz egin nahi⁶.

2. Esan bezala, Agirrek presio guztien aurka, Monzon mantendu zuen bere karguan. Horrek bi

gauza erakusten ditu: bata, euskal nazionalismoaren barruan Agirre izan zela benetakoa liderra, eta bigarrena, Telesfororekiko zeukan lotura pertsonala oso berezia eta sendoa izan zela, politikaren esparrua gainditzen duen lotura estua eta intimoa hain zuzen.

3. Agirre eta Ajuriagerraren arteko lotura pertsonala, berriz, behin ez da oso estua izan. Kartzelen oldarketaren inguruko krisi honek bi buruzagien arteko harremanak baldintzatu zituen hurrengo urteetan.

ERBESTEAN

Bilbo erori ondoren, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Gudarostearekin batera, Santander aldera erretiratu zen. Frente hori ere laster etsaiaren menpe gelditzeko arriskuan ikusi zuenean, Agirrek bere sailburuen ebakuazioa Frantziara agindu zuen, bertan euskal errefuxiatuentzako giza laguntza antolatu zezaten. Santanderren, *Cabo Mayor* izeneko finkan, berarekin geratu ziren bi sailburu jeltzale bakarrik: De la Torre Ogasunekoa eta Monzon. Hortik, eta alderdiko zuzendaritzaren agindua bezela, hiru gizon horiek *Negus* izeneko hegazkin xeble horrekin Miarritzera joan ziren, bi egun beranduago Santoñan gertatutako hondamendi militar eta politikotik ozta-ozta ihes egin zutelarik.

Ezaguna denez, 1938ko urrian lehendakariak erabaki zuen bere Gobernuaren egoitza ofiziala Bartzelonan ezartzea, eta bertan izan zen 1939ko otsailean Katalunia jausi arte. Halere, garai horretan Monzonen lantoki nagusia Iparraldean izan zen, bertan euskal errefuxiatuentzat giza-laguntza eta lana bilatzeko bulegoak antolatzen ibili zelararik. Hilabete horietan, polemika gogorak izan zituen sailburu sozialistekin, Juan Gracia, Gizarte Laguntza Sailaren buruak eta Juan de los Toyos, Lan-Sailaren buruak beraien ardurapean zeuden arloetan iheslari jeltzideen mesedetarako burutzen omen zuen interferentzia leporatzen baitzioten Monzoni.

Hasierako garai horretako beste gatazka politiko latz batean Monzon ere buru-belarri sartuta zegoen, “obediencia vasca” bezala ezagutzen den gatazkan, hain zuzen. Zertan zetzan gatazka hori?

Honen abiapuntua, Monzonek egiten zuen analisi politikoa zegoen. Bere ustez Errepublikak desagertu eta hilda zegoen eta, beraz, jadanik ez zegoen konpromiso politikorik Errepublikarekin. Horren ondorioz, garai eta testuinguru berria aprobetxatu behar zirela autonomiatik harantzago joateko. Helburu honen aldeko estrategia gauzatu ahal izateko, behar-beharrezkoa omen zen Gobernuan zeuden alderdi guztiak komuneko ideiak izatea eta alderdi “nazionalak” bilakatzea. Analisi hau praktika politikoa bihurtu nahian, Agirrek eskatu zien bere Gobernuan zeuden alderdi guztiei Gobernuan jarraitu ahal izateko adierazpen publiko bat sinatzea bi gauza aitortuz: bata, “su adhesión (..) a la solidaridad nacional vasca” eta, bestetik, etorkizunari begirako konpromisoa beraien lotura organiko guztiak euskaldunak ez ziren alderdi politikoekin bertan behera uztea. Garai horretako bileren aktak irakurri ondoren, badakigu eskakizun honen inguruan buruzagi desberdinen arteko adostasun handia zegoela, eta horren atzean Alderdi Sozialista zatitzeko asmo politikoa zegoela. 1939ko udaberrian eta udan egindako bilera horietan, Monzon egon zen Errepublikaren eta sozialisten aurkako jarrera gehien defendatu zutenen artean. Besteak beste, berak eskatu zuen Errepublikak errefuxiatuei laguntzeko sortu zituen erakundeetatik (SERE eta JARE) erretiratzea: bere ustez bertan alderdiko ordezkari bat mantentzea izango zen buru-makurtze bat (“claudicación”): “Ezin dugu gure doktrina hipotekatu”. Aktak horrela jaso zuen Monzonen azken hitza: “Ya sabe que con esto no comeríamos, pero no importa”⁷.

Aurreikus zitekeen bezala, euskal sozialistek, eta batez ere Prietok, ez zuten amore eman eta bere alderdia Jaurlaritzatik ateratzearen mehatxua egin zuten. Euskal demokrata guztien batasuna mantentzea Agirreraren helburu nagusia izen zenez, hura mehatxu gogorra izan zen, eta hori zela eta, Irujok, bileretan kritikarik formulatu ez arren, Monzoni leporatu zion estrategia arriskutsu horren aita izatea, eta hauxe idatzi zion:

“En el momento en que las izquierdas, que son una de las ruedas del Gobierno, sean separadas del eje del carro, éste no puede caminar con una rueda solo. La reacción de la izquierda vasca y su insolidaridad

se agudizarán en términos que no habrían de permitir actividad alguna a nombre de un Gobierno que desaparece como vehículo de gestión vasca, el mismo día que se rompan los lazos que lo crearon.

Yo presumo que Franco, los requetés, Prieto y Negrín recibirán encantados la noticia de la extinción del Gobierno Vasco acordada por una disposición del Partido Nacionalista (...). Y te digo, querido Monzón, que a mí me basta con ver acordes a esos cuatro núcleos de opinión, para entender que lo que ellos estimen como conveniencia será para nosotros el fracaso mayor”⁸.

Azkenean, Irujok arrazoia izan zuen eta Agirre, Nazien Europan zehar egindako bere odisea arriskutsu horretatik onik atera ondoren, zuzendu behar izan zuen akatsa, Gobernu baturik, eta sozialisten presentziarekin, mantendu ahal izateko. Bertan behera utzi zuen sozialistei egindako ultimatum, 1945ko Baionako Itunean berriz ere bildu zituen euskal demokrata guztiak Gobernuaren inguruan eta horrela 1946an bere bigarren Gobernu osatu zezakeen, Monzon Kultura sailburua izendatu zuelarik.

Artean, politikari bergararra berriz ere Iparaldean zegoen. Alemanek Frantzia sartu ondoren, Monzonek 1941ean urte beteko ihesaldi luze eta arriskutsu bati ekin zion, azkenean, Afrikatik pasa ondoren, Mexikora eraman zuena. Bertan, ardura politiko garrantzitsua hartu zuen bere gain, Jauraritza ordezkarik ofizial bezala. Garai horretan, Mexiko izan zen errepublikanismo espainiar eta katalanaren bizigune nagusia, eta hemen burutu zuen Agirrek euskal nazionalismoak espainiar politikaren eremuan inoiz egindako esku-hartzerik sakonena.

Apustu politiko garrantzitsu honen aurrekariak hauexek izan ziren: II. Mundu Gerra amaitzean eta demokrazien garaipena begi bistan zegoenean, begirale politiko guztiek pentsatzen zuten aliatuen garaipena borobiltzeko laster faxismoaren laguntzaileak izandako erregimenen aurkako ekintza etorriko zela. Une erabakior horretarako,

jakina, prest egon behar zuen Hitlerren aliatua ordezkatu zezakeen alternatiba politikoak. Francoren kasuan -eta hori ez zen bakarrik Agirrearen iritzia- alternatiba logikoa aurreko sistema demokratikora itzultzean zetzan, alegia, Gobernu errepublikanora itzultzean. Hori gauzatu ahal izateko, hau da, Gobernu errepublikanoa birsortzeko, ordea, ba zegoen arazo oso larri bat. Izan ere, erbestean zeuden Espainiako indar errepublikazale guztiak beraien artean oso zaituta eta etsaituta baitzeuden. Agirre lehendakaria segur aski alde guztiekin ongi moldatzen zen eta muga ideologiko guztien gainetik errespetu handia jasotzen zuen politikari bakarra zenez, berak hartu zuen bere gain frakzio desberdinen arteko bitartekari lana. Horrela, azkenik, 1945eko abuztuan sortu zen Giral errepublikanoak zuzentzen zuen Gobernu. Manuel Irujo izan zen kabinetearen Industria eta Merkataritza ministroa. Birsortutako Gobernu errepublikano horretan, Agirrek eta Irujok eragin oso handia izan zuten, besteak beste, gobernuaren diru-kontuak neurri handi batean kontrolatzen zituztelako. Aurreko negoziaketa prozesu luze horretan, Agirrearen bi ordezkarik eraman zuten ardura nagusia: Julio Jauregui alde batetik, eta Monzon bestetik.

Monzon hemen negoziaketan lehengo ilarran baldin bazegoen, eta Errepublikarekiko bere jarrera guztiz kritikoa kontuan hartuta, ez zen izan bera Errepublikaren bidez konbentziturako zegoelako, baizik eta bere lagun eta lider Agirrereri zor zion leialtasunagatik. Leialtasun honen adierazpen ugari daude iturrietan, esate baterako 1944ean gutun batean Agirrereri idatzitako hitz hauek: “eres además de nuestro Presidente, algo así como el Padre Prior de nuestra comunidad de amigos a cuya sombra tantas veces hasta el sufrimiento se ha hecho goxo”⁹. Izan ere, tarte errepublikazale hori azkar pasa baitzen: 1947an, Prietoren aldeko sozialistek Gobernuari konfiantza kendu zioten eta hori zela eta, Irujok ere bere kargua bertan behera utzi zuen. Gerra Hotza zela medio, ez zirudien toki guztietan komunismoaren mamua ikusten zuten mendebaldeko potentziek irudi ezkertiarra zeukan gobernu baten aldeko apustua egingo zutenik. Hemen sortu zen Prieto sozialistaren ideia: ezkerreko erakunde errepublikano guztiak deuseztatzea eta alternatiba eskuinean bilatzea, sozialistak eta

Don Juan Borboikoak zuzentzen zituen Francoren aurkako monarkiko eta militarren aldeko aliantza baten bitartez, hain zuzen ere.

Eta hauxe bai izan zen Telesforo Monzonen sentimendu eta pentsamendu politikotik oso gertu zegoen estrategia bat, estrategia errepublikanoa baino askoz ere gertuago sentitzen zuena. 1947tik aurrera, nahigabe, Monzon bihurtu zen Prietoren aliatu nagusia euskal nazionalisten eremuan. Jeltzaleen buruzagien artean, ez zen bilerarik egiten berak bere tesi nagusia defendatu gabe: Errepublikarekin hautsi beharra zegoela eta nazionalistak ere Don Juanengana hurbildu behar zirela. Monarkia berrezarri ondoren, Euskal Herrian erreferenduma egin behar zela erabakitzeko euskal herritarrek zein erregimena aukeratu nahi zuten:

“El Gobierno de la República y todo lo que gira a su alrededor ha terminado para mí (...). Fortalecer nuestra causa y esperar debe ser por hoy nuestro programa. Hay que echar a Franco con otra mentalidad y actuación. Debemos desvincularnos de todo lo que suene a corneta republicana (...). Si se trata de echar a Franco, hoy sólo hay una postura seria. Apoyar a la monarquía (...). Mi programa no es la monarquía, pero si hay que echarle a Franco no hay otro camino, y para mí el socialismo está con la monarquía. Son los generales los que van a echar a Franco, y si los vascos, catalanes y socialistas lo apoyaran, vendría la monarquía, con lo que conseguiríamos nuestro objetivo que es el de echarle a Franco”¹⁰.

Eskuinera begira zegoen pentsamendu estrategiko honen barruan, ez da harrizkoa Monzonek ere biziki eskatu eta txalotu zuela (Prietok bezala) komunista Eusko Jaurjaritazatik botatzea, Agirrek 1948ko maiatzean egin zuen bezala. Oraindik 1951ean pentsatzen zuen, erregimenarekin ados ez zeuden Falangistak euskal nazionalisten etorkizuneko aliatuak izan zitezkeela: “Como creo que las circunstancias nos darán como aliados a los falangistas españoles, quiero que no nos coja desprevenidos”¹¹.

Baina urte horietan Monzon ez zen hitzekin konformatzen, ekintzetara ere pasa zen, berak izan baitzuen harreman pertsonal asko eta sendo Don Juanengandik oso gertu zeuden monarkikoekin. Jeltzaleen artean, bera izan zen monarkiazaleen munduan *zer sukaldatzen* ari zen jakiten zuen lehena. Horrela ez da harrizkoa 1948ko abuztuan Don Juan eta Francoren arteko elkarrizketa ospetua Azor itsasontzian gertatu zenean, jeltzaleek berehala hitz egindakoari buruzko informazio zuzena jaso izana. Eta urte horietan Monzonek bazituen argudio indartsuak berak defendatzen zuen irtenbide monarkikoa errealista eta eraginkorra zela frogatzeko. 1946an, Estatu Batuetako, Frantziako eta Britainia Handiko gobernuek bere “Ohar Hirukoitza” bezala ezagutzen den

Jeltzaleen artean, bera izan zen monarkiazaleen munduan *zer sukaldatzen* ari zen jakiten zuen lehena.

adierazpen ezaguna argitaratu zutenean, gobernu demokratiko kontserbatzailearen aldeko beraien hautua jakinarazi zuten. Urte bat beranduago, urrian Londonen egindako bilera batean, Gobernu Britainiarra, Prieto eta Don Juanen ordezkaria bezala aritu zen Gil Robles elkartu ziren. 1948ko abuztuan, berriz, sozialistek eta monarkikoek “Donibane Lohizuneko Ituna” sinatu zuten, 1949ko martxoan beraien arteko “Comité de Enlace” delakoa sortuz.

Beraz, ulergarria da Monzonek bere diskurtsoarekin alderdikideen artean, eta baita Agirrerengan ere, eragin handi samarra lortu izana. Horrela, 1947ko urrian argitaratutako bere manifestuan -urtero Gernikako lehen Gobernuaren sorrera gogoratzeko urriaren 7an argitaratu ohi zuena- Prietok eta Monzonek planteatutako bideari ateak zabaldu zizkion Agirre lehendakariak, hori bai, beti ere Don Juanek zuzendutako monarkia ezarri aurretik herri-kontsulta eginez gero.

Antzeko tesiak, Prietori begira, EAJk 1949n onartutako manifestu programatikoan “Bases para una situación transitoria vasca” delako horretan ere aurkitzen dira.

Halere, 1949an zehar argi gelditu zen Don Juan eta bere jarraitzaileak askoz ere gehiago zirela monarkikoak demokratikak baino eta nahiago zutelako Francorekin konpromisoak egin bere aurka altxatzea baino. “Prietoren Plana” bezala ezagutzen zena, eta Monzonengan babes sendoa aurkitu zuena, 1951n behin betiko geratu zen bertan behera, EAJko espioitza zerbitzuek Don Juanen gutun bat eskuratu zutenean, non Francori eskatzen baitziren monarkia berrezartzea eta aldi berean sozialistekin egindako negoziaketak gogorki kritikatzeko baitzituen.

Une horretan, Agirre zen bere Gobernuaren eta alderdiaren estrategia zuzentzen zuena. Berak indar guztiarekin babestu zuen Errepublikaren bideak porrot egin zuen eta monarkiarenak ere kale egin zuen. Agirre estrategia eta itxaropenik gabe egoten ez zekenez, berehala bere bizitzaren azken plan handiari ekin zion: europar batasunaren proiektuari, hain zuzen. Monzoni, ordea, gehiago kostatu zitzaion onartzea bide monarkikoaren porrota. Alde batetik, Europarekiko ez zuen entusiasmo handirik sentitzen. Federalismoaren ideien atzean espainolisten jokabide gaiztoa sumatzen zuen, euskal nazionalismoa indargabetzeko:

“Martínez Barrio y otros políticos españoles, los más cercanos a nosotros, aceptan la forma federal, porque se dan cuenta de la marcha ascendente de Cataluña y Euzkadi en el terreno nacional y con el fin de ahogar este sentido nacional se agarran a lo federal. Si nosotros aceptamos la fórmula federal nos replegamos abandonando otras posturas más prácticas desde el punto de vista nacionalista”¹².

Beste alde batetik, Telesforok monarkia eta aristokraziarekiko zeukan lotura -soziala, politikoa eta familiarra- askoz ere estuagoa zen Agirre eta beste buruzagi nazionalistena baino. Ez litzateke gehiegikeria izango esatea egoera horretan monarkiaren aldeko apustua erabat baztertua bere buruari traizioa egitea izango zela. Halere, eta esan bezala, Monzon oso argia zen eta barneko informazio pribilegiatua edukitzen zuen. Horren ondorioz behintzat *usaindu* behar zuen Francoren aurka jotzeko gogoak geroz eta eskasagoak zeudela Don Juanen inguruan. 1950tik aurrera, dilema honetatik ateratzeko jokabide hirukoitza hartu zuen politikari bergararrak:

1950ko hamarkadan zehar garatu zuen bere diskurtsoa neurri handi batean diskurtso aurre-politikoa eta moralista izan zen:

a. Monarkiaren ideari eutsi egiten zion, errealitatea ikusi bai baina onartu nahiko ez balu bezala.

b. Horrekin batera, bere pentsamendu nazionalista areagotu eta gogortu egin zuen diskurtso esentzialista, erromantikoa eta nekazal munduari lotutakoa landuz. Hauxe zen hainbat idazkitan behin eta berriro errepikatzen zuen mezua: nazioaren berezko tradizioak berreskuratu behar zirela, kanpoko eragin arrotz guztiak baztertzeko eta euskal arima defendatzeko. 1950ko hamarkadan zehar garatu zuen bere diskurtsoa neurri handi batean diskurtso aurre-politikoa eta moralista izan zen:

“Bai izkeraz!... baita izakeraz!
Erdelkeriak gaitu zearo bereganatuak.
Kanpotik, arrotuta etorriak diran bospasei itz -Libertad! Democracia! Patriotismo! Tolerancia! Igualdad social!
Lucha de clases! Sufragio universal!

... eta beste zenbait alako- zaizkigu nagusi eginak; ta kopetan ezarria damakigun 'izenari' garrantzi geiago ematen, eginkizunetan ageri dugun 'izateari' baino. Nonaiko sasi-letradu batek bere buruari 'demócrata' izena ematen badio, aren irtenaldiak gore-nagotzat ditugu, gure baserritar batek menderik-mende jasotako gizontasun ta Lega Zaar eskola baino”.

“Goaz baserrira, ta pagadi-itzalpeko iturri preskoan garbi gaitz. Sagar-usain gabeko, lur busti-usain gabeko gure gaurko abertzaletasun sasi-letradu kaletar onek, ezpaitu ez egi ez edertasunik”¹³.

c. Horrekin guztia-rekin batera, urte horietan Monzonek Jaurlaritza eta alderdiarekiko jarrera gero eta kritikoagoa erakutsi zuen Errepublikari gehiegi lotuta egotea eta benetako estrategiarik gabe gelditu izana salatzen zuelarik. Horren aurrean, erabateko aldaketa eskatzen zuen 1951eko otsailean egindako Gobernuo bileran batean bezala: “Tengo reservas sobre si debemos acentuar la lucha contra Franco. En el interior del país todo es ineficaz e inadecuado en nuestra lucha. Hay que revisarlo todo y cambiar mucho”. “Opina que en la lucha contra Franco estamos perdidos. Mi vida no es para el antifranquismo. Franco es un incidente. ¿Tenemos mejores medios para ser universales que ser hijos de nuestro país? Los fundamentos de la civilización occidental son las almas de los viejos pueblos de Europa”¹⁴.

MONZONEN DIMISIOA

Jarrera horrekin, Monzon geroz eta islatuago gelditzen ari zen Gobernuo bileretan eta horrela ez da harritzekoa 1953ko irailean lehendakariari bere dimisioa aurkeztu izana. Arrazoia hauxe: “las

normas políticas establecidas por el Partido, una de las cuales nos obligaba a seguir reconociendo hoy todavía en las llamadas 'Instituciones de la República en el exilio' la auténtica expresión de España. No pasaría esto, a mi juicio, de una prueba de buen humor sin importancia, si de ello no se pretendiesen sacar consecuencias que he considerado y sigo considerando funestas para nuestra Patria”¹⁵.

Dimisioa onartu arren, Agirrek erabaki zuen isilpean gordetzea. Ez zuen krisia larriagotu nahi eta euskal demokraten animoa oraindik gehiago kaltetu. Gogoratu, 1953an Francok garaipen diplomatiko handia lortu zuela, Amerikako Estatu Batuekin ituna sinatu zuenean. Horrela, 1956an Agirrek

bere azken ekimen handia antolatu arte, hau da, Euskal Mundu Biltzarra bildu arte, nazionalista gehienak ez ziren Monzonen dimisioaz jabetu. Bertan, “Veinte años de gestión del Gobierno Vasco” izeneko bere txostenean lehendakariak honela jakinarazi zuen Monzonen kargu-uztea:

“Y finalmente, es Telesforo Monzón el que dejó el Gobierno por motivos personales de discrepancia política, muy libres

entre nosotros, y que yo no publiqué, contrariando los deseos de mi amigo, antiguo amigo Telesforo Monzón, porque no sé qué me daba decir que no estaba con nosotros uno de mis compañeros que estuvieron el 7 de octubre bajo el Arbol de Guernica. Tiene razón el señor Monzón cuando ha dicho que yo no he cumplido como debía. Se la doy completa. Que comprenda este pequeño escrúpulo mío, que repito ante todo el Congreso en la forma leal, limpia y clara que se lo he dicho, más de una vez, personalmente”.

Urte horietan Monzonek Jaurlaritza eta alderdiarekiko jarrera gero eta kritikoagoa erakutsi zuen Errepublikari gehiegi lotuta egotea eta benetako estrategiarik gabe gelditu izana salatzen zuelarik.

¿Tenemos mejores medios para ser universales que ser hijos de nuestro país?

Beti bezala, oso jakinarazpen dotorea izan zen, erru guztia bere gain hartuz eta bere lagun Telesforori bidea erraztuz. Halere, honek ez zuen isiltzeko eskaintza hori onartu nahi izan. Horretarako, eta Monzonek gai-zerrendan zegoen puntuari buruz hitz egin nahi ez zuenez, mahai-buruak asanbladari eskatu zion baimen berezia Telesforok hitz egin ahal izateko, eta bildutakoek baimena eman egin zuten. Ondorengo bere hitzaldi luzean bere lagunarekiko hitz goxoak aurkitu arren (“grandísima generosidad”), kritika gogorrek formulatu zituen¹⁷. Hasteko, bere dimisioa hiru urtez isilarazi izan baldin bazen, bere ustez Gobernu eta Alderdiaren barneko demokraziaren ahuleziaren adierazgarri argia zela esan zuen. Ondoren dimisioa aurkezteko izan omen zituen bi arrazoiak azaldu

Politika mailan hauxe aldarrikatu zuen: “recabar el derecho a la libertad política [...] para esa nacionalidad vasca”.

zizkien bertaratutakoei, nahiz eta ezagutzen ditugun dimisio-gutunetan arrazoi bakarra ageri zen: bata, “se seguía adscribiendo la causa vasca a una determinada solución del problema político español”, eta bestea (berria): “no ha habido una atención suficiente, un sacrificio suficiente porque es sacrificio, al mantenimiento, al robustecimiento de las características nacionales de nuestro país y me refiero principalísimamente a la lengua vasca”. Akats horiek zuzentzeko, nazionalitatearen ezaugarriak berreskuratzea eta sendotu behar ziren,

kanpoko proiektu politiko arrotzekin lotu gabe. Politika mailan hauxe aldarrikatu zuen: “recabar el derecho a la libertad política [...] para esa nacionalidad vasca”. Baina “askatasun politikoa eskuratzeko eskubide” hori separatismoaren ideia baztertuz bideratu behar omen zela azaldu zuen:

“Hay que hacer dejación de toda idea de separatismo. No para hoy, sino para hoy y mañana y para siempre. El separatismo no es más que un estorbo, el separatismo no es más que una insinceridad, el separatismo no ha logrado en nuestro país más que una sola cosa, separarnos sí, pero los vascos los unos a los otros (...) ¿Pero es que se puede creer que en un mundo que se está federando, en unas naciones que se están buscando las unas a las otras para unirse, para confederarse, en un mundo en que lo que pasa en Asia repercute al instante en nuestro país, vamos nosotros a perder energías y fuerzas por constituir unas murallas en el Ebro y otras en el Adour?”.

Monzonek amaitu ondoren txalo batzuk lortu arren, nonbait bere hitzak ez ziren denen gustukoak izan. Manuel Irujo, txosten politikoa landu behar zuen batzordearen lehendakariak, erantzun laburra eta oso gogorra eman zion:

“Siento mucha pena de que el Sr. Monzón que tantos motivos tiene de afectos para nosotros como nosotros para él, haya venido a hacer obra demogógica (...) El Señor Monzón es una voz aislada que no representa en este momento al pueblo vasco en ninguno de sus sectores. (...) si el Sr. Monzón creía que la Monarquía era la solución, debía de habernoslo dicho con todas las letras. (...) declaro que lo que acaba de decir el Sr. Monzón ni es el criterio del Partido Nacionalista Vasco a que pertenece, ni de ninguno de los otros sectores políticos vascos”.

Hay que hacer dejación de toda idea de separatismo. No para hoy, sino para hoy y mañana y para siempre. El separatismo no es más que un estorbo, el separatismo no es más que una insinceridad, el separatismo no ha logrado en nuestro país más que una sola cosa, separarnos sí, pero los vascos los unos a los otros.

Hitz hauen atzean Telesfororen lagun mina Jose Antonio Agirre zegoen, berak baimendu baitzuen Irujoren kritika latza. Lehendakariari ez zitzaion batere gustatu, euskal demokrata guztien arteko batasuna eta kemena indartzeko pentsatu zuten Kongresu handi horretan, baten batek batasunaren irudi hori zalantzan jartzea. Ambrosio Garbisu sailburu errepublikanoari bidalitako gutun batean Agirrek erabat berretsi zuen Irujoren kritika eta hauxe gaineratu zuen:

“Sabe usted que nuestro amigo Telesforo llevaba algún tiempo en medio de inquietudes espirituales y políticas producidas en gran parte por el medio ambiente social en el que se mueve. Vd. le ha oído expresarse parecidamente en los Consejos últimos del Gobierno a los que asistió. Posteriormente su aislamiento no ya con nosotros, sino con las gentes de su partido, ha sido total, e incluso su presencia en el Congreso se debió a determinación adoptada a última hora pues no pensaba venir a París”¹⁸.

Ikusten denez, Monzonek Euskal Batzar Orokorean erakutsitako jarrera zela eta, Agirrek horren beste urteetan bere lagun mina eta laguntzaile politiko estua izan zen Monzonekiko zeukan sentimendua nabarmenki hoztu egin zen. Baina, beharbada, urrutiratze horren arrazoia ez zetzan horrenbeste Monzonek publikoaren aurrean erakutsitako bere kritikan, baizik eta Agirreraren inpresioan, kritika horren atzean hitz polit eta borobilak baino ez zeudela, alegia, ez zegoela benetako alternatiba politiko bideragarriak. Horrek mindu egin zuen lehendakaria, are gehiago, kontuan hartzen badugu, bere bizitzaren azken urte horietan Agirre, bere Gobernu eta bere Alderdia Francoren aurkako estrategia egoki eta emankor baten bila ari zirela aurretik erabilitako guztiek porrot egin ondoren. Zentzu horretan, Manuel Irujori bidalitako gutun hau oso esanguratxoa da:

Tentsio eta polemika guztien gainerik, Monzonek gorde zuen Agirreretikiko gazte garaitik sentitzen zuen errespetua eta maitasuna.

“También los demás hemos recibido de nuestro Telesforo cartas muy afectuosas. Yo creo que tú eres el culpable de la cantidad de zalema que nuestro amigo nos envía en sus cartas porque le queda dentro la zorra que le diste en el Congreso. Más vale que así sea y que la reflexión del pasado le sirva para desarrollar los bucólicos programas a que te refieres porque eso está muy bien, pero que tenga cuidado de no interferirles cuando el país entero, con menos poesía pero con más sentido de la realidad, quiere acordar programas de acción comun que son siempre cesión y tolerancia por parte de todos (...) Lo importante es marchar y marchar unidos, que lo demás se nos dará por añadidura”¹⁹.

Monzonek, berriz, eutsi egin zion bereari eta 1957tik aurrera beste behin piztu zuen polemika EAJren prentsan, besteak beste, ohiko moduan monarkiaren irtenbidea defendatuz. Lehendakaria ez ustean hil zenean, polemika honek oraindik zirauen prentsan. Halere, kritika, tentsio eta polemika guztien gainerik, Monzonek gorde zuen Agirreretikiko gazte garaitik sentitzen zuen errespetua eta maitasuna. Lurperatu aurretik, Agirre lehendakariari azken agurra Telesfororen etxean egin izana oso esanguratsua da zentzu honetan. Eta Monzon ere izan zen nekrologiarik hunkigarrienetariko bat idatzi zuena. Hona hemen artikuluko honetako pasarte bat:

“Agirre eta bion arteko adiskidetasuna ezda beti goxoa izan. Bai zera! Baiñan ederra, bai, ekaitzaren antzera, bere tximisten ondotik entzutekoak bai ziran aren drumoiak. Zaparradaren ondoko lur-busti usaiñak biltzen ginduzen bereala elkarretara berriz. Eta, Juangoiko maitia, geroko besarkada estu aiek zein ede-

rrak ziran! Azkeneko urte auetan, batezere, beti eztabaidan giñen. Arek bide bat ikusten eta nik bestea. Baiña gure Erriaren miñez bizi giñan biok. Eta gogoan dut, Biriatur, buruz buru izan genuen azken bazkari artan, non la esaten zidan Gipuzkoa-ko mendiei begira: 'Beazak Telesforo: nire bideak eramaten bagaitu etxeraiño ez duk ik negarrik egingo. Eta ireak eraman bear ba gindu, nik ere ez. Beraz, edan zaun biok elkarren osasunera!' Eta mainetik jaiki giñala gero: 'Gehien geiena bazkari ontan, bakik zer gustatu zaidan. Denbora guziz biok euskeraz egin izatea'.

Azkenean, ez baten ez bestearen bideak eraman zituen etxeraino: Franco ohean hil baitzen. Halere, bi gizonak Euskal Herriko historia garai-kidearen ondarearen ezinbesteko zutabeak dira, beraien lorpen eta akats guztiakin. Bien arteko laguntasuna eta maitasuna bi izaera guztiz desberdinen arteko loturaren istorioa da, biek, azken finean, politikari buruzko kontzeptu oso desberdinak zeuzkatelako. Egia da biek egin eta pentsatzen zutela politika grinaz eta pasioaz. Agirre, ordea, Max Weber soziologo ezagunaren terminologia erabiltzeko, "politikari profesionala" zen, bere pasioa errealismoaz eta pragmatismoaz mugatzen

zekiena. Monzon, bestalde, eta nahiz eta bere apustu monarkikoak garai batean nahiko errealista iruditu, politikaria baino gehiago poeta izan zen, edo, berak Parisko Biltzar handi horretan esan zuen bezala, Txirrita bezalako bertsolaria izan nahi zuen, "aquel bersolari inculto, pero hijo de la raza, nacido junto al árbol, junto al río, oliendo a manzanas, hijo de sus padres que se pierden en la eternidad, proyectando en sus nietos el futuro Euzkadi sin casi saber nada, ni hablar, eso quisiera ser yo ante vosotros"²¹.

Bertsolari honek politikari profesionala maite zuen, desberdintasun eta gatazka guztien gainetik. Agirre hil zenean, Telesforo EAJren munduan erreferentziarik gabe gelditu zen. Horrek beldurra ematen zion, *Alderdi*n argitaratutako eta lehen aipatu dugun nekrologian aitortu zuen legez: "Orain nere bidetik gauaz bakarrik nabilela, aren bearra sumatzen dut eta, joana bai zaigu, tarteka etortzen zait ... olako beldur antzeko bat".

Beldur hori gainditzeko, eta bere herriaren askatasunaren alde bertsoka jarraitu ahal izateko, beste eszenatoki baten bila hasi zen Monzon berehala, baita aurkitu ere: ETA eta ezker abertzalea eraikitzen ari ziren eszenatokiari buruz ari naiz, noski. Baina hori beste kontu bat da, nire gaurko artikulua eremutik at geratzen dena.

NOTAS

- 1 Ikus Anasagasti, Iñaki (2006): *Llámame Telesforo*. Tafalla, Txalaparta, 212-213 orr.
- 2 Sierra Bustamante, Ramón (1941): *Euzkadi. De Sabino Arana a José Antonio Aguirre. Notas para la historia del nacionalismo vasco*, Madrid, Editora Nacional, 155-156 orr.
- 3 Chiapuso, Manuel (1977): *Los anarquistas y la guerra en Euskadi. La Comuna de San Sebastián*, San Sebastián, Txertoa, 149 or.; ikus. baita Jiménez de Aberásturi, Luis M. eta Juan Carlos (2007): *La Guerra en Euskadi. 1936-37*, San Sebastián, Txertoa, 168-169 orr.
- 4 Anasagasti, 48 or.
- 5 Aipua ondoko liburuan: Granja, José Luis de la (2007): *El oasis vasco. El nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Madrid, Ténos, 429 or.
- 6 "De eso prefiero no hablar". Ikus. Anasagasti, 76 or.
- 7 Pablo, Santiago de / Mees, Ludger / Rodríguez Ranz, José Antonio (2001): *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, II: 1936-1979*, Barcelona, Crítica, 82. or.
- 8 Ibid. 103. or.

- 9 1944ko martxoaren 10eko gutuna, Nazionalismoaren Agiritegia (NA), PNV-117-2.
- 10 1948ko martxoaren 23ko bilera ("Reunión entre Dionisio, Axpe, Víctor, Ángel, Barazar, Jon y Teles"), NA, EBB-120-2.
- 11 1951eko otsailaren 2ko bilera, NA, DP-130-1.
- 12 "Acta de reunión de la Comisión Política con Juan Ajuriaguerra", 1947.8.25, NA, EBB-120-2.
- 13 Ikus. Monzón, Telesforo (1986): *Hitzak eta idazkiak*. Zarautz, Itxaropena, III. alea, 76. or.
- 14 NA, DP-136-1.
- 15 EBBko lehendakariari bidalitako gutuna, 1953.9.23, NA, PNV-89-3.
- 16 *Congreso Mundial Vasco. Euskal Batzar Orokorra. 25. aniversario* (1981). Vitoria-Gasteiz, Gobierno Vasco, 95. or.
- 17 Hau eta hurrengo aipua ibid., 189-207 orr.
- 18 Gutuna 1956.11.7koa. NA, GE-669-2.
- 19 Gutuna 1957.1.3koa, Irujo Fondona, 30-5.
- 20 "Agirre lendakariaren gauilla", *Alderdi*, 157-158, 1960ko maiatza.
- 21 *Congreso Mundial Vasco*, 186. or.